

Komunikazioaren sei sariak merezitakoentzat

Argia Sarien 19. edizioa ospatu zen urtarrilaren 25ean. Ehundik gora lagun bildu ginen gizarte, politika eta kultura alorrekoak. Bilgunea Lasarte-Oriako Txitxardin Beltxa jatetxea izan zen, han ederki bazkaldu eta gero izan baitzen sari banaketa.

ONINTZA IRURETA
Argazkiak: Sara Santos



2008ko Argia Sariak: Irratia Saria, Nekane Peñagarikano (ezkerretik lehenengoa), Tere Beloki (behean lehenengoa) eta Arantxa Iturbe (goian laugarrena). Merezimenduzko Saria, Emilio Lopez Adan (ezkerretik bigarrena). Publizitate Saria, Kultura Sailaren izenean Miren Azkarate (hirugarrena) eta Miren Dobaran (behean bigarrena), Sareko Argia Saria, euskarazko Wikipediarentzat (Mikel Iturbe goian erdian, Julen Gomez behean sariarekin eta Unai Fernandez de Betoño Gomezen alboan). Telebista Saria *Mihiluzeren* izenean Ilaski Serrano eta Kike Amonarriz (biak sariarekin) eta Prentsa idatzia Saria Imanol Muruarentzat (behean eskuinean).

EHUNDIK GORA GONBIDATUAK Txitxardin Beltxa jatetxeko atarian elkar-tu ginen, aspaldian ikusi gabekoak agurtu eta disimulan saridunak zein izan zitezkeen kalkulatu. Zizka-miz-ken tartea amaituta bazkari goxoaz eta tertulia atseginaz gozatzeko garaia.

Izozkiaren eta pastelxoeren ordua baino lehen Arantza Egañak oharrarazi zigun sari banaketa gertu zela. Aurrez Xabier Letona ARGIAko zuzendariak hitz batzuk egin zituen. Gatazka politikoa dela-eta azken aldi gertatu diren erasoak izan zituen gogoan: ANVren eta EHAKren ilegalizazio prozesuak, tortura, 18/98 eta Atutxa auziak, eta laster izango den Egunkaria auzia.

Krisi politikoa, eta komunikazioaren sektorean dagoen krisia ere aipatu zuten zuzendariak, batez ere, prentsa-aren beherakada. Ordaindutako prentsa-aren lehiakide Internet eta doako prentsa gogora ekarri zituen Letonak. Zurrunbilo horren erdian, sarean bertan, ARGIAk egin duen ahalegina azpimarratu zuten zuzendariak eta baita

2007an sortutako bi enpresa aurkeztu ere: iametza eta Luditoys.

Zuzendariaren hitzaldia amaituta sariak iritsi ziren erreskadan. Sareko Argia Saria euskarazko Wikipediarentzat izan zen eta saria jaso zuten egun hartara arte elkar ezagutzen ez zuten Unai Fernandez de Betoño, Mikel Iturbe eta Julen Gomezek. Prentsa idatzian sariduna gaur egun *Berriako* kazetaria den Imanol Murua Uria izan zen; batzuen harridurarako, uste baitzuten dagoeneko Argia Saria jaso zuela. Publizitate saria Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarentzat izan zen herritar-erak euskarazko hedabideak kontsumit-zerantz bultzatzeko egindako iragarkia-

rengetik. Telebista saria *Mihiluze* saioak jaso zuen eta halaxe, lantalde ia osoa gerturatu ziren saria hartzera. Irratia saridunak lanean harrapatu genituen. *Arratsaldekoa* saioko hiru esatariak jate-txe atarian ziren lanean zuzenean. Epe-lera sartu besterik ez zuten egin behar izan saria jasotzeko. Azken saria, baina ez meritu gutxiagokoa Merezimenduz-ko saria izan zen. Emilio Lopez Adanek, euskarazko komunikabideetan urte luzez kolaboratu duen ginekologoak, jaso zuen saria.

Diru saririk ez duten sei sari, Anton Mendizabal eskultoreak mai-tasun handiz urtero prestatzen dituen sariak. ■



(1): Bazkal aurreko zizka-mizka garaian. (2): Elhuyar Fundazioko Maria Gil eta Itziar Nogeras eta Anton Mendizabal Argia Sarien egilea. (3): Internautak elkar ezagutzen: Gorka Bereziartua ARGIAko kidea, Julen Gomez, Mikel Iturbe eta Unai Fernandez de Betoño euskarazko wikipediako administratzaileak eta Jon Torner ARGIAko kidea. (4): Anuntxi Arana eta Andde Saint Marie. (5): Emilio Lopez Adan Mikel Bujandari bostekoa ematen. Atzean Patxi Larrion, Antton Olariaga eta Jon Alonso. (6): Alderdi politikoetako kideak mahaiaren inguruan. (7): Bingen Zupiria, Erramun Osa eta Guillermo Gurrutxaga. (8): Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua saria jasota hitzalditxoa egiten.